

42. BASARRI BERTSOPAPER SARIA (2026) OINARRIAK

1. SARIA

Zarauzko Udalak 42. Basarri Bertsopaper saria antolatu du, euskara eta bertsogintza sustatzeko.

2. BALDINTZAK

Sariketan parte hartzeko, ondorengo baldintzak beteko dituzte lanek:

- Bertsopaper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan behar ditu.
- Gaia librea izango da.
- Bertso sorta bakoitzaren doinua izenburuaren ondoan zehaztuko da.
- Parte-hartzaileek gehienez bi lan bidal ditzakete.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dira.

3. AURKEZPENA

Lanak posta elektronikoz aurkeztuko dira:

kultura@zarautz.eus helbidera bi pdf artxibo bidali, era honetara:

- Bertso sorta:** bertso sortaren izenburua eta parentesi artean egilearen izengoitia. Adibidez: **Udaberria (Pirata beltza).pdf**
- Izen-emate orria osatuta eta sinatuta:** pdf dokumentuaren izena egilearen izengoitia izango da, adibidez: **Pirata beltza.pdf**

Bertsotik bertsora bi lerro zuriko tarteak utziko da.

Lanak jaso izanaren ziurtagiria edo mezua jasoko dute egileek. Beraz, erantzunik jasotzen ez bada, lanak behar bezala iritsi ez direla adieraziko du.

4. EPEAK

Lanak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 19an amaituko da. Epaia uztailearen lehen astean jakinaraziko da.

Sari-ematea uztailean egingo da, Bertso Astean.

5. EPAIMAHAIA

Hiru lagunek osatuko dute epaimahaia. 42. edizioko epaimahaian izango dira: Andoni Egaña, Nahikari Gabilondo eta Uxue Alkorta edo horien ordezkariak.

Zarauzko Udalak idazkari bat izendatuko du, epaileen arteko batzarra deitzeko, erabakia jasotzeko eta irabazleari jakinarazteko.

6. EPAIAK

Zarauzko Udalak 1.800 euro ezarri ditu irabazlearentzat. Saria PFEZ zergaren atxikipez salbuetsita dago.

Epaimahaiaren erabakia atzeraezina izango da. Aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez balute, saria eman gabe geratuko da.

7. SARI-EMATEA

Saria Bertso Astean egingo den ekitaldian emango da.

8. LANEN JABETZA ETA SARITU GABEKO LANAK

Egilearena da lanaren gaineko jabetza.

Zarauzko Udalak konfidentzialtasun osoz gordeko ditu lan guztiak. Epaia ezagutzera eman ostean, deuseztatu egingo ditu saritu gabeko lanak.

9. LEGE BARRUTIA

Arautegi honetan jasotzen ez den gorabeherarik sortzen bada, sariketara aurkeztu diren egileek auzi guztiekiko erabakia erakunde antolatzailearen esku utziko dute.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.